

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

176

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 19koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Olympia Berri homologatzen da, enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko.

Ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren bidez, aholkularitza-erakundeek enpresei eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko laguntza teknikoa emateko behar duten homologazioa arautu zen. Dekretuak bi helburu ditu: gizarte-eragileen bitartez enpresek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintza positiboko neurriak aplikatzea sustatzea, batetik, eta aholkularitza-zerbitzuak onak, eraginkorrak eta profesionalak izatea bermatzea, bestetik.

Raquel López García andreak indarreko arautegian eskatutako agiriak aurkeztu ditu; agiriok aztertuta, enpresak ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuko 2. artikuluan eskatutako betekizunak betetzen dituela ondorioztatu da.

Batzorde Ebaluatzaileak eskatzaileak bidalitako proiektuak 50 puntu baino gehiago lortu dituela egiaztatu du, hau da, dekretu araupetzaileko 5. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa baino gehiago.

Hori dela eta, aurkeztutako eskaera eta agirien balorazioa aztertu ondoren eta Batzorde Ebaluatzaileak proposatuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Olympia Berri (Raquel López García) bost urterako homologatu da enpresei eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuan ezarritakoaren arabera eta bertan finkatutako baldintzekin.

Bigarrena.– Olympia Berri (Raquel López García) bere agiri guztietan aipatu ahal izango du homologazio hau, indarrean dagoen bitartean.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek administrazio-bidea agortu du. Beronen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, eta, horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian, eta, horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena aldizkari berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 19a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.